

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Gure proiektuaren baliabide fisikoak honako hauek dira: pultsadorea eta tableta edo mugikorra. Baliabide intelektualak eta giza baliabideak, berriz, honako hauek dira: Saioaren sormena, Iratik informatikan ibiltzeko duen gaitasuna eta idazteko duen trebetasuna. Naiarak ordena mantentzeko duen abilezia, lanirek taldeari positibotasuna ahalbidetzeko duen gaitasuna eta Andreak salmentarako eta

antolaketaarako dauzkan abileziak. Azken baliabidea finantza-baliabidea izango litzateke eta horretarako kredituak eta gure aurrezkiak erabiliko genituzke.

Bakoitza bere espezialitatean oinarrituz proiektua aurrera ateratzea lortu dugu. Egia da hainbat kontaktu izan ditugula lagungarri egin zaizkigunak, esaterako: irakasleak eta hainbat enpresa, baina gure aurreko esperientziak kontutan hartuta lan azkarra eta egokia egin dugula iruditzen zaigu.



Agian ez dugu proiektu biribil edo perfektu bat burutu, baina akatsetatik ikasten dela uste dugu eta kexaren bat izanez gero erantzuteko eta konpontzeko prest egongo ginateke, hori baita gure oinarrizko eginkizuna.

Lehen aipatu ditugun abileziak aintzat hartuta asko ikasi dugu bata bestearekiko eta elkar laguntzeko asko balio izan digute.



Proiektuak arrakasta handia izango duela uste dugu erabilgarria eta eskuragarria izango delako eta, batez ere, erabiltzeko garaian ez duelako inongo zailtasunik izango. Horrez gain, bezeroekiko gatazkak ekiditeko egokia dela pentsatzen dugu, ezin baitira azpijokoetan ibilii.

